Vitoria-Gasteiz

2 - 23
NOVIEMBRE
2000

Conservatorio
Superior de Música
«JESUS GURIDI»

Aula Magna
20:15 horas

# III CICLO
# XX de música del siglo

Arabako Foru Aldundia
Kultura Saila

Diputación Foral de Alava
Departamento de Cultura

# conciertos

AULA MAGNA ISAAC ALBÉNIZ
Conservatorio de Música
«Jesús Guridi» de Vitoria-Gasteiz

## TRIO BERNAOLA

jueves, 2
de noviembre
20:15 horas





## GRUPO VOCAL KEA AHOTS TALDEA

jueves, 9 de noviembre
20:15 horas



## DUO COLLOQUY

Jueves, 16 de noviembre
20:15 horas



## MIGUEL BERNAT percusión

jueves 23 de noviembre
20:15 horas



III ciclo

El paso por Vitoria de Carmelo Bernaola, mi abundante amigo otxandiarra, ha dejado estela, surco y huella, seguidores convencidos, gentes abiertas hacia lo no muy popular. Nuestro Conservatorio, en sus manos Escuela Superior de Música, lleva su impronta como primer director, y muchos de sus actuales profesores y antiguos alumnos pueden dar fe de ello. Pero no es sólo un tema de su capacidad organizativa, de su experiencia profesoral sino también su sobresaliente buen hacer en la música contemporánea como compositor e impulsor. Vaya, por tanto, el agradecimiento del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Álava a su figura por todo lo que hizo por Álava y Vitoria. Asimismo, a los organizadores de este Ciclo que servirá para acercar a nuestro público a la nueva música.

**Pedro de Sancristóval y Múrua**
DIPUTADO FORAL DE CULTURA

# Trío Bernaola

## Concierto

TRIO BERNAOLA

jueves, 2 de noviembre, 20:15 horas

AULA MAGNA ISAAC ALBÉNIZ
Conservatorio de Música «Jesús Guridi» de Vitoria-Gasteiz

## Programa

HILARIO EXTREMIANA
"Dos encuentros y un recuerdo" para clarinete bajo, cello,piano

ZURINE F. GUERENABARRENA
"Artizar" para clarinete bajo y cello

RAMON LAZCANO
"Bihurketak" para clarinete, celo y piano

GABRIEL ERKOREKA
"Saturno" para clarinete/clarinete bajo y cello

ANTONIO LAUZURIKA
"Pequeño catalogo de objetos musicales" para clarinete/clarinete bajo, cello y piano

**El Trío Bernaola,** fundado en la Royal Academy of Music de Londres, toma su nombre del eminente compositor vasco Carmelo Bernaola. Consolidado como una agrupación principalmente interesada en la música contemporánea y en la divulgación de obras de compositores actuales, cubre a su vez un amplio repertorio clásico y romántico. Calificados por la prensa española como "no solo un grupo con talento, sino además tres intérpretes muy dotados", es un conjunto flexible que dinamiza sus programas incorporando dúos y solos para cello, clarinete/clarinete bajo y piano. Sus integrantes son:



**Iñigo Alonso** nace en Vitoria el 12 de Mayo de 1970. Tras finalizar sus estudios de clarinete en España, se traslada a Bélgica donde realiza los cursos de especialización en clarinete, clarinete bajo y música de cámara en el Royal Flemish Conservatory of Music de Amberes, de la mano de Walter Boeykens (clarinete) y Jan Guns (clarinete bajo), obteniendo las máximas calificaciones en ambas modalidades. Una vez finalizado estos, es becado por la Royal Academy of Music de Londres, para seguir un curso de postgraduado bajo la tutela de Andrew Marriner, clarinete principal de la London Symphony, donde consigue el Diploma con Mérito y el título de profesor de clarinete (Licenciate of the Royal Academy of Music). Seguidamente se desplaza a Japón, donde sigue un curso de prácticas orquestales becado por la Toho University of Music (Tokio). Muy interesado en la música contemporánea, Iñigo ha pertenecido a diversas formaciones camerísticas de este estilo y realizado diversos conciertos a lo largo de toda Europa. Entre estos grupos cabe destacar "Champ D'action"(Bélgica), "Aquarius Ensemble"(Holanda), "Composers Ensemble" y " New Music Players" (UK). También a realizado una labor muy intensa en el campo orquestal, tanto amateur (Joven Orquesta de Vitoria, Flemish Youth Orchestra, Britten-Pears Orchestra, ........) como profesional (Vlaams Radio Orchestra, Orquesta de Galicia, Teatro del Liceo.......). Fundador del "Trio Bernaola" (clarinete, violonchelo, piano), cabe destacar su participación en la

Quincena Musical de San Sebastián, emitido por Radio Nacional de España, y en la Semana de Música Contemporánea de Lejona, diversos conciertos en el Reino Unido y la reciente grabación de un CD titulado "Jóvenes Compositores Vascos". En Enero de este año ha ejecutado el Concierto para clarinete bajo y banda de K.Vlaak, junto a la Banda Municipal de Música de Vitoria (estreno en España). En lo que respecta a su actividad docente ha sido profesor de la Escuela de Música de Buitrago (Madrid) y profesor invitado en los Cursos Internacionales de Verano en Frensham y Dartington (UK), Cévennes (Francia). Durante este año ha sido invitado por el Departamento de Viento del Conservatorio Superior de Música "Jesús Guridi", para impartir un cursillo sobre técnica, interpretación y repertorio del clarinete bajo.



**Natalie Rozario** chelista con base en UK, es miembro de varias agrupaciones de música de cámara como el Killian String Quartet, ganadores en 1998 del Ireland Fund Chamber Music Award en Belfast y del Tate Ensemble con quienes ha sido finalista este año del Royal Overseas League Competition. Ha estudiado con David Strange en la Royal Academy of Music de Londres donde se le fue concedido el Diploma of Advanced Studies with Merit y ganó el Douglas Cameron Cello Prize en 1997. También ha sido becada por la English Speaking Union para asistir a las clases de William Pleeth en 1998. Dentro de su experiencia con orquestas, ha trabajado con la BBC Concert Orchestral, el Brunel Ensemble y la Camerata Roman en Suecia.



**Patricia Azanza** nace en Vitoria en 1975, donde realiza sus estudios superiores en el Conservatorio "Jesús Guridi" con los profesores Angela Vilagran y Albert Nieto, obteniendo el premio fin de carrera. Amplio

sus estudios en la Universidad de Alcalá de Henares con Josep María Colom. En el año 1994 se traslada a Freiburg (Alemania) para perfeccionarse en la "Musikhochschule" de la citada ciudad becada por la "Alexander von Humboldt" Stiftung y la Diputación Foral de Alava, donde trabaja con los Profesores Elza Kolodin y Vitali Berzon, obteniendo las máximas calificaciones. Se le otorga una plaza de Profesora en calidad de "Lehrauftrag". Ha sido galardonada con numerosos premios en diversos concursos nacionales e internacionales (Albacete, Manresa, Barcelona,...) y ha realizado grabaciones para Radio Nacional y Südwestfunk. Destaca su trabajo tanto en la música de cámara como en la contemporánea y sinfónica (pianista de la Joven Orquesta del País Vasco, actuaciones con la JONDE, Orquesta Sinfónica de Euskadi...). También ha ofrecido conciertos por toda la geografía española, Alemania y Suiza (Quincena Musical, Festival Steinway, Konzerthaus de Freiburg...) y ha actuado como solista bajo la batuta de Juanjo Mena, James Ross y Thomas Schmieger. Dentro de sus próximos compromisos cabe destacar su gira de conciertos en el Reino Unido, promocionando su reciente CD "Jóvenes Compositores Vascos" y la participación en el Festival "A Tempo" (Venezuela).

KEA

# Concierto

jueves, 9 de noviembre , 20:15 horas

AULA MAGNA ISAAC ALBÉNIZ
Conservatorio de Música «Jesús Guridi» de Vitoria-Gasteiz

# Programa

**I parte**

BY THE WATERS OF BABYLON E. Fissinger (1920-1990)

De "LE CANTIQUE DES CANTIQUES":
II. La Voix du Bien-Aimé J. Y. Daniel-Lesur (1952)

CLAVIANTE BRILIOSO T. Jennefelt (1997)

**II parte**

VINEA MEA ELECTA F. Poulenc (1899-1963)
HEAR MY PRAYER, O LORD H. Purcell (1659-1695)
/S.-D. Sandström (1942-)
WIE EIN KIND: P. Nörgard (1932-)
1. Wiigen-Lied (A. Wölfli)
2. Frühlings-Lied (R.M. Rilke)
3. Trauermarsch mit einem Unglücksfall (A. Wölfli)

*Director: Enrique Azurza*

| | |
|---|---|
| MOIRA CEBERIO | Soprano |
| MIREN GARIKANO | Soprano |
| KARMELE IRIARTE | Soprano |
| Mª JESÚS UGALDE | Soprano |
| DAVID AZURZA | Contratenor |
| ARANTXA IRAZUSTA | Contralto |
| JAVIER ALBERDI | Tenor |
| JON ETXABE | Tenor |
| JOSU LÓPEZ SORALUZE | Barítono |
| XABIER SARASOLA | Barítono |
| VÍCTOR Gª DE LA TORRE REY | Bajo |

## Grupo vocal KEA ahots taldea

Formado en junio de 1997 con el objeto de difundir la música coral del último siglo, es el único grupo de estas características en el País Vasco.

Sus componentes provienen de diversas agrupaciones vascas y poseen una amplia formación musical y vocal. Muchos de ellos son profesionales de la música: profesores de canto, solistas, directores de coro, compositores.

Hizo su presentación en junio de 1998 en Beasain, estrenando la obra "Kriatura Bat" del compositor vasco Jesús Mª Sagarna.

En junio de 1999 fue invitado por ERESBIL (Archivo de autores vascos) para interpretar obras de músicos vascos del siglo XX. En este concierto estrenó "Jesu Dulcis memoria" de Enrique Vázquez, obra que recibió el Premio a la Creación Musical Contemporánea 1998 del Gobierno vasco.





Invitado por el Festival Internacional de Tolosa, ofreció un concierto en el marco del Gran Premio Europeo de Canto Coral que tuvo lugar recientemente en dicha localidad.

Ha actuado además en la Semana de Música Contemporánea de Leioa (Vizcaya), en la Semana de Música Religiosa de Segovia, y en el Festival Internacional de Polifonía de Avila.

En la última edición de Musikaste interpretó "Zurezko Olerkia", de Luis de Pablo, para grupo vocal, txalaparta y percusión. Esta misma obra fue interpretada en la última edición de la Quincena Musical Donostiarra.

III ciclo

**ENRIQUE AZURZA, director** Estudia dirección coral en el País Vasco y en Estocolmo con Anders Eby, becado por la Diputación de Guipúzcoa.

Dirige el Coro Hodeiertz de Tolosa, el Coro de la Universidad del País Vasco, el Coro del Instituto Aragonés de Canto Coral y el Coro Juvenil de la Federación Española de Coros, con los que ha participado con éxito en festivales y concursos nacionales e internacionales.

En 1991 recibió el premio al mejor director en el Certamen Internacional de Varna (Bulgaria).

En 1996 participó con el Coro Hodeiertz de Tolosa en el IV Simposio Mundial de Música Coral que tuvo lugar en Sidney (Australia), invitados por la Federación Internacional de Música Coral como único representante español.

Es profesor de dirección en los cursos de la Federación de Euskal-Herria y en la Federación de Aragón. Ha sido profesor de canto coral en el Conservatorio de Leioa (Vizcaya) y director de la Coral san Juan Bautista de dicha localidad. Ha impartido además cursos y seminarios por toda España. Es invitado regularmente como jurado en diversos certámenes. En 1996 fue miembro del jurado del Gran Premio Europeo de Canto Coral que se celebró en Debrecen (Hungría).

Es asesor musical del Festival Internacional de Tolosa y de la Federación Española de Coros.

Ha actuado además con el Coro San Jakob de Estocolmo, el Coro Juvenil de la Federación de Guipúzcoa y el Coro Región de Murcia.

# Dúo Colloquy

## Concierto

DÚO COLLOQUY

Jueves, 16 de noviembre, 20:15 horas

AULA MAGNA ISAAC ALBÉNIZ
Conservatorio de Música «Jesús Guridi» de Vitoria-Gasteiz

## Programa

### I parte

Phono. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . H. MATSUD (1959 - )
para saxo alto y percusión

Vila*. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . I. RUIZ DE INFANTE (1975 - )
para percusión solo

### II parte

Le Frêne Egaré. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . F. ROSSE (1945 - )

Kimu* . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . E. VAZQUEZ (1964 - )

* Estreno absoluto: Estas dos obras surgen por encargo del dúo Colloquy y han sido subvencionadas por la Consejería de Cultura del Gobierno Vasco en su apartado de ayudas a la Creación Musical Contemporánea.

## Dúo Colloquy

Se forma en 1998 por la inquietud de explorar el repertorio actual escrito para este tipo de agrupación instrumental. Durante 1999 actúa en numerosas ocasiones en la Comunidad Valenciana, Aragón, La Rioja y Galicia, obteniendo el Diploma de Honor Internacional de Música en el torneo celebrado en Zaragoza. En Marzo de 2000 actúa en el Club DIARIO LEVANTEcon gran éxito de crítica y público.

## Angel Gimeno Quiles
## Saxofón

Pedralba (Valencia) 1970. Depués de haver obtenido el Título Superior de saxofón en el Conservatorio Superior de Música de Valencia, realiza diversos cursos de perfeccionamiento y técnica de Saxofón con los profesores: J. Belda, M.J.B. Charrier, A. Gomis, M. Miján y J.M. Londeix. Paralelamente asiste a cursos de análisis musical y pedagogía con los profesores: J.A. Martinez, J. Guillot, J.L. Castillo, J. Villarrojo, J.M. García, R. Alís y C. Havel. Desde 1994 es profesor de Saxofón en el Conservatorio Profesional de Música de La Rioja. Como docente ha impartido cursos de perfeccionamiento en la XII Escuela Internacional de Música de Jávea (Alicante) y en



la Escuela de Múisca de Santanyi (Alicante). Ha realizado diversas actuaciones como solista y en grupos de Cámara: Cuarteto de Saxofones "Jacques Ibert" en el R.C.S.M.M. y Dúo "Colloquy" en Zaragoza y Valencia. Colabora habitualmente con la Orquesta Sinfónica de Bilbao y con el Ensemble de saxofones del Palau de la Música de Valencia.

## José Vicente Faus Faus

**percusión** Manises (Valencia) 1972. Comienza sus estudios musicales en la Escuela de la Sociedad Musical Artística Mansense, con el profesor J. Carrascosa. Posteriormente estudia en el Conservatorio Superior de Música de Valencia con M. Tomás, J. Salvador y J.J. Cervero. En el Conservatorio Superior de Música de Zaragoza con J.M. Ramada, obteniendo el Título Superior de Percusión. Amplia sus estudios: -Repertorio Orquestal (S. Levey, C. Peris, A. Sanz, J.J. Rubio, J.J. Guillén, J. Prentice y N. Word),-Percusión solo: (E. Sejourne, M.A. Bernat, R. van Sice, J.V. Mark, F. Fort) -Percusión pedagógica (S. López, J. Benet, M.A. Rodríguez) - Percusión Ensemble: (G. Bouche). 1994 - 97 solista de timbales de la Joven Orquesta de la Comunidad Autónima de Valencia. Pertenece al grupo Percusión Ensemble de Zaragoza. Actualmente es profesor de Percusión del Conservatorio Profesional de Música de La Rioja. Ha realizado diversos programas con la Orquesta Ciudad de Granada, Orquesta Sinfónica Milenium de Logroño, Orquesta de Cámara del Auditorio de Zaragoza y Grupo Enigma.

# Concierto

## MIGUEL BERNAT, percusión

jueves 23 de noviembre, 20:15 horas

AULA MAGNA ISAAC ALBÉNIZ
Conservatorio de Música Jesús «Jesús Guridi»
de Vitoria-Gasteiz

# Programa

CÁLCULO SECRETO (1996) . . . . .José Manuel lópez López
para vibráfono solo

LUNA NUEVA (2000) . . . . . . . . . . . . . . . . . . .Jesus Rueda
para percusión de metal solo

SHE WHO SLEEPS WITH A SMALL BLANKET (1986) .Kevin Volans
para percusión solo

ASÍ EL ACERO (1987) . . . . . . . . . . . . . . . . . .Javier Alvarez
para Steel Drum y sonidos electrónicos

LOSING TOUCH (1995) . . . . . . . . . . . . .Edmund Campion
para vibráfono y cinta magnética.

TEMAZCAL (1984) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .Javier Alvarez



**Miguel Bernat** Nacido en Benisanó (Valencia), estudió en los conservatorios de Valencia, Madrid, Bruselas, Rotterdam, y en Aspen Summer Music Course, USA. Ganó el "Premio Extraordinario Fin de Carrera" del Conservatorio de Madrid, el Premio Especial de Percusion del concurso GAUDEAMUS de Holanda en 1993, asi como el 2° premio del Aspen Nakamichi Competition (USA).

Musico de gran vesrsatilidad, ha tocado con la Orquesta Ciutat de Barcelona y con la Royal Concertgebouw Orchestra de Amsterdam entre otras, con los grupos de musica contemporanea "ICTUS", "Cuarteto ICTUS", "Trio Allures", "Duo Contemporain", etc.

Solista en numerosos recitales, es remarcable el estreno mundial del Concierto para Marimba y 15 instrumentos de David de Puerto en el festival ARS MUSICA de Bruselas y ENSEMS de Valencia.

Despues de enseñar en los Conservatorios de Rotterdam y de Bruselas, Miguel BERNAT esta efectuando una intensa labor pedagogica en la Escola Superior de Musica de Oporto y la Escola Profesional de Musica de Espinho (Portugal). Ha creado "DRUMMING" Grupo de Percusion en Oporto, con el que ha dirigido numerosos conciertos en Portugal Francia y España.

Ha sido invitado regularmente a los más grandes Festivales Internacionales de Música Contemporanea (Francia, Inglaterra, Alemania, Italia, Suiza, Finlandia, Holanda, Bélgica, Australia, Venezuela, Brasil, Thailandia, USA, Austria, Portugal, España, etc.) para dar, entre otros, recitales de percusión solo y numerosas "Master Classes".

Grabó varios Discos Compactos como; Duo Contemporain (BS-0193); (BS 0298); Tall Poppies(TP-053); Globe 5126, Champ D' Action (MDC 7877), Ensemble Musique Nouvelle (ADDA 581295),Trio Allures (ETECETERA), Ictus (MDC7835), etc.

En 1998, es solista para la música de escena del espectaculo "Just Before" de la coreógrafa belga Anne Teresa de KEERSMAEKER.

Apasionado por la creación contemporanea, Miguel BERNAT colabora estrechamente con numerosos compositores (decenas de obras le han sido dedicadas), contribuyendo así a engrandir el repertorio de la percusión en constante evolución.

Vitoria-Gasteiz

2tik-23ra
AZAROAREN
2000ko

# XX mendeko musikaren

«JESUS GURIDI»
Goi-mailako
Musika Kontserbatorioa

Areto Nagusia
20:15ean

# III. ZIKLOA

Arabako
Foru Aldundia
Kultura Saila

Diputación
Foral de Álava
Departamento de Cultura

Carmelo Bernaolak, nire otxandioar adiskide oparoak, Gasteizen bizi izandako denboran bere aztarna utzi du, arrastoa eta lorratza, bete-beteko jarraitzaileak, oso herrikoia ez denari irekita dagoen jendea. Gure kontserbatorioak, haren eskuetan Goi-mailako Musika Eskola izan zenak, berak lehen zuzendari bezala eman zion izaera gordetzen du, eta lehengo ikasle eta oraingo irakasle askok hala egiazta dezakete. Eta ez naiz ari bere irakasle esperientziaz eta antolaketarako gaitasunaz bakarrik, baizik eta musika garaikidean konposatzaile eta bultzatzaile bezala egin duen lan bikainaz ere bai. Horregatik, Arabako Foru Aldundiaren Kultura Sailak hemendik eskerrak eman nahi dizkio Arabarentzat eta Gasteizentzat egin zuen guztiagatik. Eta orobat hemengo entzuleak musika berrira hurbil daitezen lagundu nahi duen ziklo honen antolatzaileei.

**Pedro de Sancristóval y Murua**
KULTURAKO FORU DIPUTATUA

# Trío Bernaola

## Kontzertua

TRIO BERNAOLA

azaroaren, 2a osteguna, 20:15ean

ISAAC ALBÉNIZ IKASGELA NAGUSIA

Vitoria-Gasteizko «Jesús Guridi» Musika Kontserbatorioa

## Programa

HILARIO EXTREMIANA

"Dos encuentros y un recuerdo" klarinete baxu, biolontxelo eta pianorako

ZURINE F. GUERENABARRENA

"Artizar" klarinete baxu eta biolontxelorako.

RAMÓN LAZCANO

"Bihurketak" klarinete, biolontxelo eta pianorako

GABRIEL ERKOREKA

"Saturno" klarinete/klarinete baxu eta biolontxelorako.

ANTONIO LAUZURIKA

"Pequeño catálogo de objetos musicales" klarinete/klarinete baxu, biolontxelo eta pianorako.

**Trío Bernaola taldeak,** Londresko Royal Academy of Music ikastegian sortuak, Carmelo Bernaola euskal konposatzaile handiarengandik hartua du izena. Musika garaikidea eta gaur egungo konposatzaileen lanen zabalkundea bere interesgune nagusiak dituen elkarte bat bezala sendotu delarik, aldi berean errepertorio klasiko eta erromantiko zabala hartzen du. Espainiako prentsak "talentudun taldea izateaz gainera, dohain handiko hiru jotzaile" direla esan du. Talde malgua da, bere programak dinamizatzeko biolontxelo, klarinete/klarinete baxu eta pianorako duo eta soloak sartzen dituena. Hauek dira taldekideak:



**Iñigo Alonso** Iñigo Alonso Gasteizen jaio zen, 1970eko maiatzaren 12an. Espainian klarinete ikasketak amaitu ondoren, Belgikara joan zen eta han klarinete, klarinete baxu eta ganberako musikan espezializatzeko ikastaroak egin zituen Amberesko Royal Flemish Conservatory of Music ikastegian, Walter Boeykensen eta Jan Gunsen eskutik, klarinetean eta klarinete baxuan, hurrenez hurren. Bi arloetan kalifikaziorik gorenak eskuratu zituen. Ikasketa hauek amaituta, Londresko Royal Academy of Music-en beka jaso zuen graduatu ondoko ikastaro bat egiteko London Symphonyko klarinete nagusia den Andrew Marrineren zuzendaritzapean. Merituzko diploma eta klarinete irakasle titulua lortu zituen (Licenciate of the Royal Academy of Music). Ondoren, Japoniara joan zen eta han orkestra-praktiketako ikastaro bat egin zuen Tokioko Toho University of Music ikastegiaren beka batekin. Musika garaikideaz interes handia duelarik, Iñigo tankera horretako hainbat ganberataldetako kidea izan da eta Europa guztian zehar kontzertuak eman ditu. Talde horien artean, honako hauek nabarmentzekoak dira: "Champ d'action" (Belgika), "Aquarius Ensemble" (Holanda), "Composers Ensemble" eta "New Music Players" (UK). Orkestra eremuan ere lan handia egin du, bai amateur bezala (Joven Orquesta de Vitoria, Flemish Youth Orchestra, Britten Pears Orchestra...), baita profesional moduan ere (Vlaams Radio Orchestra, Orquesta de Galicia, Teatro del Liceo...). Trio Bernaola taldea (klarinetea, biolontxeloa, pianoa) sortu

musikaren III. zikloa

du. Aipatzekoa da Donostiako Musika Hamabostaldian eta Leioako Musika Garaikidearen Astean izan duen partaidetza –lehenengoa Radio Nacional de Españak eskaini zuen–; baita ere, Erresuma Batuan eman dituen zenbait kontzertu eta orain dela gutxi "Jóvenes Compositores Vascos" izena duen CD bat grabatu izana. Aurtengo urtarrilean K. Vlaaken klarinete baxu eta bandarako kontzertua jo du Gasteizko Udalaren Musika Bandarekin batera (lehenbiziko aldiz Espainian). Irakaskuntza jardunari dagokionez, Madrilen Buitragoko Musika Eskolako irakaslea izan da, baita udako nazioarteko zenbait ikastarotako irakasle gonbidatua ere: Frensham eta Dartington (UK) eta Cévennes (Frantzia). Urte honetan, "Jesús Guridi" Goi-mailako Musika Kontserbatorioko Haize Sailaren gonbidapena jaso du klarinete baxuaren teknika, interpretazio eta errepertorioari buruzko ikastaro bat emateko.



**Natalie Rozario** egoitza Erresuma Batuan duen biolontxelojolea, ganbera musikako zenbait taldetako kidea da: Killian String Quartet, 1998an, Belfasten, Ireland Fund Chamber Music Award saria irabazi zuena, eta Tate Ensemble (talde honekin Royal Overseas League Competition-eko finalista izan da aurten). David Strangerekin ikasi du Londresko Royal Academy of Music-en. Bertan Diploma of Advanced Studies with Merit eman zioten. 1997an, Douglas Cameron Cello Prize irabazi zuen. Baita ere, English Speaking Union-en beka jaso zuen 1998an William Pleethen klaseetara joateko. Orkestra musikaren arloko esperientziaren barruan, BBC Concert Orchestrarekin, Brunel Ensemblerekin eta Camerata Romanekin aritu da Suedian.



**Patricia Azanza** 1975ean jaio zen, Gasteizen. Bertako "Jesús Guridi" kontserbatorioan goi-mailako ikasketak egin zituen, Angela Vilagran eta Albert Nieto irakasleekin, eta karrera-bukaerako saria lortu zuen.

Alcalá de Henaresko Unibertsitatean bere ikasketak osatu zituen, Josep Maria Colomekin. 1994. urtean Alemaniako Freiburgera joan zen hiri horretako "Musikhochschule" ikastegian hobekuntza saioak egitera, Alexander von Humboldt Stiftungen eta Arabako Foru Aldundiaren bekarekin. Han, Elza Kolodin eta Vitali Berzon irakasleekin ikasi zuen, kalifikaziorik gorenak lortuz. Irakasle postu bat eman zitzaion "Lehrauftrag" bezala. Hainbat sari jaso ditu Espainiako eta nazioarteko musikaldietan (Albacete, Manresa, Bartzelona...) eta Radio Nacional eta Südwestfunkentzat grabaketak egin ditu. Nabarmentzekoa da bai ganbera-musikan bai musika garaikidean eta sinfonikoan ere egiten duen lana (Euskal Herriko Gazte Orkestrako pianojolea da, JONDErekin, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin e.a. jardun izan du). Baita ere, Espainia guztian, Alemanian eta Suitzan kontzertuak eman ditu (Musika Hamabostaldia, Steinway Musikaldia, Freiburgeko Kontzerthaus...) eta solista moduan aritu da, Juanjo Mena, James Ross eta Thomas Schmiegeren zuzendaritzapean. Epe laburrean dituen konpromisoen artean, aipatzekoa da Erresuma Batuan egingo duen kontzertu itzulia, duela gutxi plazaratu duen "Jóvenes Compositores Vascos" izeneko CDa sustatzeko, eta Venezuelako "A Tempo" musikaldiko partaidetza.

# Kontzertua

azaroaren 9a, osteguna, 20:15ean

ISAAC ALBÉNIZ IKASGELA NAGUSIA
Vitoria-Gasteizko «Jesús Guridi» Musika Kontserbatorioa

# Programa

**I. ZATIA**

BY THE WATERS OF BABYLON E. Fissinger (1920-1990)

"LE CANTIQUE DES CANTIQUES":
II. La Voix du Bien-Aimé J. Y. Daniel-Lesur (1952)

CLAVIANTE BRILIOSO T. Jennefelt (1997)

**II. ZATIA**

VINEA MEA ELECTA F. Poulenc (1899-1963)
HEAR MY PRAYER, O LORD H. Purcell (1659-1695)
/S.-D. Sandström (1942-)
WIE EIN KIND: P. Nörgard (1932-)
1. Wiigen-Lied (A. Wölfli)
2. Frühlings-Lied (R.M. Rilke)
3. Trauermarsch mit einem Unglücksfall (A. Wölfli)

*Zuzendaria: Enrique Azurza*

| | |
|---|---|
| MOIRA CEBERIO | Sopranoa |
| MIREN GARIKANO | Sopranoa |
| KARMELE IRIARTE | Sopranoa |
| Mª JESÚS UGALDE | Sopranoa |
| DAVID AZURZA | Kontratenorea |
| ARANTXA IRAZUSTA | Kontraltoa |
| JAVIER ALBERDI | Tenorea |
| JON ETXABE | Tenorea |
| JOSU LÓPEZ SORALUZE | Baritonoa |
| XABIER SARASOLA | Baritonoa |
| VÍCTOR Gª DE LA TORRE REY | Baxua |

mendeko

## Grupo vocal «KEA» ahots taldea

1997ko ekainean sortu zen, azken mendeko musika korala zabaltzeko asmoz. Euskal Herrian ezaugarri hori duen talde bakarra da.

Bere kideek Euskal Herriko talde desberdinetatik datoz eta musika eta ahots prestakuntza sendoa dute. Horietako asko musikako profesionalak dira: kantu irakasleak, solistak, abesbatza zuzendariak, konposatzaileak.

1998ko ekainean egin zuen bere aurkezpena, Beasainen, Jesús M. Sagarna euskal konposatzailearen "Kriatura Bat" izeneko lana estreinatuz.

1999ko ekainean ERESBILek (euskal autoreen artxiboak) gonbidatu zuen XX. mendeko euskal musikarien lanak kantatzeko. Kontzertu horretan Enrique Vázquezen "Jesu Dulcis memoria" estreinatu zuen. Lan horrek Eusko Jaurlaritzaren Musika Garaikidearen 1998ko Saria lortu zuen.



musikaren

Tolosako Nazioarteko Musikaldiak gonbidaturik, kontzertua eman du herri horretan duela gutxi izan den Europako Abesbatza-Kantu Sari Nagusiaren barruan.

Gainera, Leioako (Bizkaia) Musika Garaikidearen Astean, Segoviako Erlijio Musika Astean eta Avilako Nazioarteko Polifonia Jaialdian ere jardun du.

Musikastearen azken edizioan, Luis de Pabloren "Zurezko Olerkia" kantatu zuen, ahots talde, txalaparta eta perkusiorako lana. Lan hau berau Donostiako Musika Hamabostaldiaren azken edizioan eman zen.

**ENRIQUE AZURZA, zuzendaria** Abesbatza-zuzendaritza ikasi du, Euskal Herrian eta Estokolmon, Anders Ebyrekin, Gipuzkoako Aldundiaren beka batekin.

Tolosako Hodeiertz Abesbatza, Euskal Herriko Unibertsitateko Abesbatza, Instituto Aragonés de Canto Coral-eko abesbatza eta Espainiako Abesbatza Federazioko Gazte Abesbatza zuzentzen ditu. Talde horiekin, partaidetza arrakastatsua izan du Espainiako eta nazioarteko musikaldi eta lehiaketetan.

1991n, zuzendari hoberenarentzako saria jaso zuen Varnako Nazioarteko Lehiaketan (Bulgarian).

1996an, Sydneyn (Australian) egin zen Munduko IV. Abesbatza Simposiumean parte hartu zuen Tolosako Hodeiertz Abesbatzarekin, Nazioarteko Abesbatza-Musika Federazioak gonbidaturik, Espainiako ordezkari bakarra izan zelarik.

Zuzendaritza irakaslea da Euskal Herriko Federazioaren ikastaroetan eta Aragoiko Federazioan. Abesbatza-kantu irakaslea izan da Leioako Kontserbatorioan (Bizkaia), eta herri horretako San Juan Bautista abesbatzaren zuzendaria. Gainera, ikastaroak eta mintegiak eman ditu Espainia guztian zehar. Epaimahaikide bezala gonbidatu ohi dute hainbat lehiaketatan. 1996an, Debrecenen (Hungarian) egin zen Europako Abesbatza Sariketa Nagusiko epaimahaikidea izan zen.

Tolosako Nazioarteko Jaialdiaren eta Espainiako Abesbatza Federazioaren musika-aholkularia da.

Gainera, Estokolmoko San Jakob abesbatzarekin, Gipuzkoako Federazioko Gazte Abesbatzarekin eta Región de Murcia abesbatzarekin ere jardun du.

# Dúo Colloquy

## Kontzertua

DÚO COLLOQUY

Azaroaren 16a, osteguna, 20:15ean

ISAAC ALBÉNIZ IKASGELA NAGUSIA
Vitoria-Gasteizko «Jesús Guridi» Musika Kontserbatorioa

## Programa

### I. ZATIA

Phono. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . H. MATSUD (1959 - )
saxo alto eta perkusiorako

Vila* . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . I. RUIZ DE INFANTE (1975 - )
perkusio soilerako

### II. ZATIA

Le Frêne Egaré. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . F. ROSSE (1945 - )

Kimu* . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . E. VAZQUEZ (1964 - )

* Erabateko estreinaldia: Bi lan hauek Duo Colloquyren enkarguz sortu dira eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak subentzionatu ditu, Musika Garaikidea Sortzeko laguntzen esparruan.

## Dúo Colloquy

1998. urtean sortu zen, mota honetako instrumentu taldeentzat idatzitako gaur egungo errepertorioa ikertzeko kezkak bultzaturik. 1999an zehar Valentziako Erkidegoan, Aragoien, Errioxan eta Galizian aritu zen hainbat aldiz, eta Zaragozan egin zen lehiaketan Nazioarteko Ohorezko Musika Diploma lortu zuen. 2000ko martxoan DIARIO LEVANTE klubean jo du, kritikari eta entzuleengandik arrakasta handia lortuz.

## Angel Gimeno Quiles

**saxofoia** Pedralba (Valentzia) 1970. Valentziako Goi-mailako Musika Kontserbatorioan goi-mailako saxofoi titulua lortu eta gero, saxofoi teknika eta hobekuntzako ikastaroak egin ditu J. Belda, M.J.B. Charrier, A. Gomis, M. Miján eta J.M. Londeix irakasleekin. Horrekin batera, musika-analisi eta pedagogiari buruzko ikastaroetan parte hartu du, J.A. Martínez, J. Guillot, J.L. Castillo, J. Villarrojo, J.M. García, R. Alís eta C. Havel irakasle izan dituela. 1994az geroztik Errioxako Musika Kontserbatorio Profesionalean saxofoi irakaslea da. Irakaskuntza arloan, hobekuntza ikastaroak eman ditu Jáveako (Alacant) XII.



musikaren

Nazioarteko Musika Eskolan eta Santanyiko (Alacant) Musika Eskolan. Solista bezala eta ganbera taldeetan hainbat saio egin du: "Jacques Ibert" saxofoi laukotearekin, R.C.S.M.M.an eta Duo Colloquyrekin Zaragozan eta Valentzian. Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin eta Valentziako Palau de la Musica-ko saxofoi taldearekin elkarlanean aritzen da.

## José Vicente Faus Faus

**perkusioa** Manises (Valentzia) 1972. Sociedad Musical Artística Mansenseko eskolan hasi zen musika ikasten, J. Carrascosa irakaslearekin. Geroago, Valentziako Goi-mailako Musika Kontserbatorioan ikasi zuen, M. Tomás, J. Salvador eta J.J. Cerverorekin. Zaragozako Goi-mailako Musika Kontserbatorioan, J.M. Ramadarekin, goi-mailako perkusio saria lortu zuen. Bere ikasketak osatu ditu: orkestra errepertorioa (S. Levey, C. Peris, A.Sanz, J.J. Rubio, J.J.Guillén, J. Prentice eta N. Word), perkusio soila (E. Sejourne, M.A. Bernat, R. van Sice, J.V. Mark, F. Fort), perkusio pedagogikoa (S. López, J. Benet, M.A. Rodriguez), talde perkusioa (G. Bouche). 1994-97 bitartean Valentziako Autonomia Erkidegoko Gazte Orkestrako tinbal solista izan zen. Zaragozako Percusion Ensemble taldeko kidea da. Gaur egun, Errioxako Musika Kontserbatorio Profesionaleko perkusio irakaslea da. Hainbat programa egin du Ciudad de Granada orkestrarekin, Logroñoko Orquesta Sinfónica Mileniumekin, Zaragozako Auditoriumeko ganbara orkestrarekin eta Grupo Enigmarekin.

# Kontzertua

## MIGUEL BERNAT, perkusioa

azaroaren 23a, osteguna, 20:15ean

ISAAC ALBÉNIZ IKASGELA NAGUSIA
Vitoria-Gasteizko «Jesús Guridi» Musika Kontserbatorioa

# Programa

CÁLCULO SECRETO (1996) . . . . José Manuel lópez López
bibrafono soilerako

LUNA NUEVA (2000) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . Jesus Rueda
metalezko perkusio soilerako

SHE WHO SLEEPS WITH A SMALL BLANKET (1986). .Kevin Volans
perkusio soilerako

ASÍ EL ACERO (1987) . . . . . . . . . . . . . . . . . Javier Alvarez
Steel Drum eta soinu elektronikoetarako

LOSING TOUCH (1995) . . . . . . . . . . . .Edmund Campion
bibrafono eta zinta magnetikorako

TEMAZCAL (1984) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . Javier Alvarez





**Miguel Bernat** Valentziako Benisanó herrian jaio zen. Valentzia, Madril, Bruselas eta Rotterdameko kontserbatorioetan eta Estatu Batuetako Aspen Summer Music Course-n ikasi zuen. Madrilgo Kontserbatorioko "Karrera-bukaerako Aparteko Saria" irabazi zuen, baita Holandako GAUDEAMUS lehiaketako Perkusio Sari Berezia ere, 1993. urtean, eta Aspen Nakamichi Competition lehiaketako 2. saria.

Moldakortasun handiko musikaria da. Ciutat de Barcelona orkestrarekin eta Amsterdameko Royal Concertgebouw Orchestrarekin jo du, besteak beste, baita musika garaikideko taldeekin ere: "ICTUS", "Cuarteto ICTUS", "Trio Allures", "Duo Contemporain" eta abar. Errezitaldi askotan solista bezala aritu da. Aipagarria da David del Puertoren marimba eta 15 instrumentutarako kontzertuaren munduko estreinaldia, Bruselasko ARS MUSICA jaialdian eta Valentziako ENSEMSen.
Rotterdameko eta Bruselasko kontserbatorioetan eskola ematen ibili eta gero, Miguel Bernat Oportoko Goi-mailako Musika Eskolan eta Espinhoko Musika Eskola Profesionalean (Portugalen) pedagogia lan handia egiten ari da. Oporton "DRUMMING" perkusio taldea sortu du, eta berarekin kontzertu ugari zuzendu du, Portugalen, Espainian eta Frantzian.

Musika Garaikidearen Nazioarteko Jaialdirik garrantzitsuenetan (Frantzian, Ingelaterran, Alemanian, Italian, Suitzan, Finlandian, Holandan, Belgikan, Australian, Venezuelan, Brasilen, Thailandian, Estatu Batuetan, Austrian, Portugalen, Espainian, e.a.) gonbidatua izaten da perkusio soileko errezitaldiak eta "master class" ugari emateko, besteak beste.

Hainbat CD grabatu du, hala nola Duo Contemporain (BS-0193); (BS-0298); Tall Poppies (TP-053); Globe 5126, Champ d'Action (MDC 7877), Ensemble Musique Nouvelle (ADDA 581295), Trio Allures (ETECETERA), Ictus (MDC7835), e.a.

1998. urtean, Anne Teresa de Keersmaeker koreografo belgikarraren "Just Before" ikuskizunaren eszenategiko musikarako solista da.

Miguel Bernatek musika garaikidea sortzeko lana guztiz maite du eta lankidetasun estuan aritzen da hainbat konposatzailerekin (lan asko eskaini dizkiote berari). Horrela, etengabeko bilakaeran ari den perkusioaren errepertorioa zabalagotzen laguntzen du.

mendeko